

FRANTZIAKO KEXU- -KOADERNOEN AZTERKETA BAT

Josu Chueca Intxusta

**EHUko Gizarte eta Informazio-Zientzien
Fakultateko Irakaslea**

Lantxo honen bitartez, 1789.eko Iraultzaren bezperetan eztabaidatu eta izkiriatu ziren Kexu koadernoetara hurbilketa burutzen saiatu gara. Jakina denez, Estatu orokorrak bildu baino aurreko hilabeteetan, Frantzia osoan barrena, bertako biztanleek orduko egoera politiko zein sozioekonomikoaren azterketari ekin zioten. Ariketa kolektibo honen emaitzek, kexu-koadernoek alegia, lurralde eta giza maila guztietako isladapena eskaintzen digute. Ildo honetatik, Ipar Euskal Herria ez zen salbuespena eta lurralde euskaldunetako koadernoek, batzuek euskaraz idatzitakoak, XVIII. mende amaieraren egoeraz berri anitz ematen digute. Hain zuzen ere, koaderno hauetako zenbait pasartetan oinarrituaz fenomeno honen osotasun eta konplexutasunera hurbiltzen saiatzen gara. Era berean, arreta berezia eskaintzen diogu, gehienetan historiatik kanpo gelditu den sektore zehatz bati, hau da, emakumezkoarenari.

1979ko urtarriletik aitzina, frantziarrek hiltzear zegoen Erregimen zaharreko testamentua idazteari ekin zioten. Historian zehar sekulan ere ez da egin horrelako elkarridazlanik, zeren ehundaka agiri eta liburuska izkiriitzeaz gain, 40.000tik gora kexu-koaderno baliatu bait ziren elkarren arteko eztabaiden bitartez Estamentuen helburuak argitzeko. "Cahier de Doleances" direlakoekin eritzi publikoa jaio zen eta gaur hain maiz egiten diren hauteskundeetarako inkestak eta egitarauak hasi ziren.

Izuak, itxaropenak, kexak eta arrenkurak mintzatzera zihoazen. Frantzia osoak bere burua auzitan paratzen du, bere arazoak miatzen eta izkiriitzen dituelarik. Hiriek, herriek, bailiek beren bozeramaileak "ohiturei jarraituz", "usarioen arabera", elkartu eta hautatu zituzten, Estatu Orokorrak prestatzeko.

Pierre Goubert-ek La Chapelle-Craonnaiseko hirian gertatutakoaz mintzatzen zaigu: "1789.eko martxoaren lehen egunean, homilian, apaizak erregearen aginduak betetzeko Anjouko seneskaliaren loktenenteak egin duen agiria irakurtzen du. Luis XVI-ek Versallesen ospatuko diren Estatu Orokorretarako deia egiten du. Bere dei-manuaren arabera, hogeitabortz urtetik gora duten gizonezkoek, martxoaren seian, ohizko diren biltzartokietan elkartu beharko dute, ez bakarrik beren kexak argitu eta idatzi ditzaten, baita beren ordezkariak hauta ditzaten ere.

Aipatutako egunean, ezquila-deiarekin batera, elizaren aterpean, egon behar zutenetik erdia biltzen dira. Estatu Orokorretarako hauteskundeen usarioei jarraikiz, epailerik ez dagoelako, notario batek izango du bilkuraren lehendakaritza. Biltzarkideei beren kexu-koaderno idaztera gonbidatzen ditu eta hor daudenak larrialdian egongo lirateke bertako merkatari batek kanpotik ekarritako testu bat azalduko ez balu. Testu-eredu hau hain ongi idatzirik iruditzen zaie, ezen zenbait ñabardura ezik, jende ororen baimenarekin onartzen bait da¹.

Ipar Euskadin, Luis VXI. en deiak, euskaldunen artean makina bat protesta jaso zuen, lurraldeetako "Bilcarrak" eta "ohiturak" kontutan hartzen ez zituelako. Zuberoa ezik, Iparraldeko lurralde guztiek, nahiz eta arrazoi desberdinak erabili, martxan zegoen prozesuari bere desadostasuna erakutsi zioten. Lapurdiren kasuan, bera eta Baiona Lannesko bailiari atxekiak ziren. Honi, lau diputatu zegozkion eta hautesleen biltzarra Daxen elkartzekoa zen. Hau zela eta, lapurtarrek agiri luze bat bidali zioten erregeari erranez Lapurdik, soil-soilik, bailia bat osatu behar zuela, zeren "Bilcar" deitutako asanblada berezkoak ukaitez gain, oraindino konstituzio berezi eta "coutume" batzu gordetzen zituen eta, azken finean, lurralde berdintsuen modura hartuta izan behar zuen.

Baiona eta Lapurdiko eskakizunek arrakasta desberdina izan zuten. Lehenengoarena arbuiaurik izan zen

bitartean, Ustaritzeko bailiari, erret agiri baten bidez, lau ordezkari eman zizkioten. Hauek aukeratzeko eta koadernoak izkiriatzeko, 1789ko apirilaren 19ean, Ustaritzeko elizan hiru estatuak batzartu ziren. Urtubiko Joachimek zuzendutako bilerak igandetik ostiral arte iraun zuen eta diputatuak hautatzeaz gain (Apezteriaren izenean, Ziburuko erretorea zen Jean Louis Xavier de Saint Esteben, nobleziaren aldetik, Makayako bizkontea, Nikolas Haraneder, eta hirugarren estatutik, Garat Dominique eta Joseph anaiak) koadernoan eztabaida eta erredakzio-lanari ekin zioten.

Hirugarren estatua, Lapurdik zeukan antolamendu bereziaz baliatu zen eginbehar hau aurrera eramateko. Lurralde honetan, garai hartan, 35 parrokia zeuden. Bakoitzaren kudeamendu eta administrazioa jabedun ziren guztien asanbladen bitartez egiten zen. Interes orokorraren aferendako parrokia orok Ustaritzera bere auzapezak igortzen zituzten, Baile jauna buruaren pean "bilcarrretan" eztabaida zitzaten. Izan ere, 1789ko martxoaren 17an, "Bilcarrak" parrokia guztiak gonbidatu zituen Bailiara beren kexu-koadernoak bidaltzera. Denbora berean, batzorde bat izendatu zuen denak testu bakar batean bildu zitzaizkien. Hau burutu bezain laister, euskarazko itzulpena egin ondoren, berriro parrokia guztiei bidali zien. Guiche, Urt eta Bardoseko biztanleek aldaketa txiki batzuek eskatu zuten arren, baimena ia erabatekoa izan zen, behin betiko "kahierra" apirilaren 23an onartu zutelarik.

Arazoak sortu ziren Nafarroa Beherean ere. Hemen, Luis XVI.ren erabakia ezagutu zutenetik, nafarrek bere buruari galdetu zioten ea bere lurraldeari komeni zitzaion Estatu Orokorretara joatea. Versaillesko bilkuretan parte hartzeak Biarno eta Nafarroa erreinuko probintzia hutsak zirela baieztatzea izango litzateke, ez joatea, ordea, subirotasunaren aldarrikapena izango litzateke. Azkenean, Nafarroa Behereko estatuak, Donibane Garazin bildurik, "erregearengana" diputazio bat bidaltzea erabaki zuten baina, inola ere ez, Estatu Orokorretara. Apaizek, Baionako apezpikua, Mr. Villevielle, hautetsi zuten. Nobleek, Olhonzeko markesa, Logras jauna, eta Estatu Lauak, Biderengo jauna, Arnaud de Vivier, eta Donibane Garaziko notarioa zen Franchisteguy jauna. Bere aginduak konsultiboak izango ziren eta Versaillesko bileretan aritzeak ez zukeen kaltetu behar Nafarroak zituen konstituzio eta eskubide bereziak.

Zuberoak bere aldetik, erregearen agindua onartu zuen eta Maulen elkartu ziren 1789ko maiatzean, hiri honetako Arraing alkatea, notarioa zen Escuret Laborde, Olorongo gotzaia, Mr. Villoutreis de Faye eta Uharteko markesa hautatuak izan zirelarik².

Hogeitasei milioi frantziarren artetik, bortz milioi paseak ziharduen eztabaida eta idazketa honetan. Hala eta guztiz ere, gizartearen osotasuna aintzakotzak hartuz gero, parte hartze hau oso mugatuta geldituko litzateke,

alde batetik hautatuen ordezkagarritasuna urria zelako eta bestetik, tokian tokiko koadernoen ordezkailia-mailan "cahier"en laburpenak nagusitzen zirelako.

Izan ere, Estatu Orokorretara joan ziren 1209 diputatuen artean (308 elizgizon, 282 aristokrata eta 619 Hirugarren Estatuko partaide) bi lehenbiziko estamentuetan, hautesle eta hautatuen arteko parekotasun soziala erabatekoa izan zen arren, hirugarren estatuari zegokionez ez zen horrela gertatu, itzelezko desberdintasuna izan zelarik. Estamentu honetan hautetsi eta ordezkatuak urruntasun sozioekonomikoa nabaria zen oso. Herri lauaren biztanle gehiengoa laboraria bazen ere, haien ordezkarietatik bi herenek lanbide juridikoetan edota erret administrazioan lan egiten zuten. Honen ondorioz, nekazaritza eta industriaren gainera, zuzenbide eta burokraziaren nagusigoak eragin handia izan zuen asanbladaren joera espekulatiboa berrindar zedin³.

Bertzalde, ordezkagarritasun eskas honi, "Cahier de Coleances"ek jasandako aldaketa eta murrizaldiak gaineratu behar zitzaizkion. Dakigunez, hautesle-maila bakoitzean "Cahier" bat burutzen zen, geroxeago, biltzar nagusi batean, Seneskalia edo Bailiaren osoko Estamentuaren behin betiko testu amankomuna idazteko asmoz. Bigarren urrats honetan, hau da Bailiaren koadernoaren egitean, nekazal herrietatik eta hirietako barruti txiroetatik zetozen eskakizunak gutxitzen ziren bitartean, hirietako legegizonek eta burgesek, errei-

bindikazio politiko, administratibo eta finantzari lehentasuna ematen zieten. Hau zela eta, 1789ko lehenbiziko hilabetetako prozesua demokratiko izan arren, azken finean, pribilegiatuen gutxiengo batek egotzi zituen bai herri eta hirietako talde apalen egotea, bai hauek plazaratutako errebindikazioak⁴.

Hala ere, muga hauek garrantzitsuak badira ere, kexu-koadernoek Frantziako lurralde eta klaseetako egoera sozioekonomikoak isladatzen dituzte. Absolutismoaren egoera sozioekonomikoak isladatzen dituzte. Absolutismoaren kontra azaldutako kritikak hiru estamentuen idatzietan nagusitzen diren bitartean, erregea eta erakunde monarkikoa goraiatuak izanen dira behin eta berriro.

"Jauna, guk erran dezakeguna baino askoz biziagoki sentitzen dugu Estatu orokorren eraberritzea Erreinuaren lurralde guztien ongia zabaltzera doala. Guk sentitzen dugu zenbat kuraia behar izan duen erret aulkian jaiotako printzipe batek, aginte absolutuaren gustuan hezitakoa, bere sortze gunetik edonolako eginpidearen arauz erabat zioaturik dagoenak, bere herriak eskubide osoak izan ditzan erabaki zabala hartzeko. Guk ondo dakigu zenbat aurreritzi zokoratu, zenbat ilusio baztertu, eta zenbat oztopo gaintu behar izan dituen bere egiazko nahia ezagutzeko, sarritan bere herriaren borondatearekin bat zetorrena eta bere ministroen guraren kontra zihoana. Era berean, denok ezagutzen ditugu, zenbat ahalegin, orain dela bi urtetik hona, egin dituen

gure monarkak, bere nazioarengandik aldentzen zituzten langa guztiak apurtzeko." (Langresko koaderno⁵).

Monarkiaren onerpenari atxekia, Cahier anitzetan Iparramerikak eratu izan zuen bezalako konstituzio baten beharra azpimarratzen zen. Goi-arau baten falta eta administrazioan zegoen nagusikeria kalte guztietako iturritzat hartzen ziren.

"Oinarri sendoetan erattutako konstituzio bat ez izateak, ministroei legeak hausteko askatasun osoa lagatuz, berehala eraman die hauei legeak bere borondate aldakorrena ordezkatzera. Hortik dator aginte ororen zokoramendua, inor ez da, berez zegokion agintera, mugatu eta bakoitzak berea zabal dadin ahalegin guztiak egiten ditu, askatasun publikoa eta nazioaren ongi izatearen kaltetan. Guk lege finkoak izan bagenitu, ontsa ezarritako konstituzio bat, ez genuen ondasun guztien kontrako eraso larrienak burutuko zituzten ministro ezjakitun, bihurri eta hondakaririk ikusiko." (Brieyko Bailiaren Estatu Lauaren Koaderno⁶).

Ildo berdintsuak jorratuko dituzte cahier anitzek. Adibide hurbilena Lapurdin dugu. Hirugarren estatuaren testuan, "heren galde beresi eta partikularrak" azaldu aurretik lehenbiziko atalean "Nacionari eman behar cayoen Constitucionea"ren izenburupean ez zen argudiatzen konstituzio zehatz bati buruz, baizik eta zer oinarrizko giza eskubide eta zer nolako garantiak osatu behar ziren Estatu Generalek askatasun osoz funtziona zezaten bere zeregin legislatiboa aitzinat eramateko.

"Legueac eguin ondoan, legue hec eta legue heyen Ministroac ichilic daudeceino, Erregueren sujetei nihore ez dio beldurcunderic eman behar ez bere onthasun gocamenean, ez bere libertate osoaren gainean: legueac eguinez gueroz Erregueren sujet bakhotchac ez behar ican nihortaz bilhatua Erresumaco legeg manatcen duten khasutan eta maneretan baicen: letra de cachet deitcen diren, preso emaiteco manuez, ez da cilhegui behar ican guehiago cerbitcea: hirietaco eta provincietaco Comendant eta Gobernadorec ez dute hemendic harat podoreric behar ican, soldaduez eta soldaduzco cerbitcua intresatcen duten eguitecoez campoan, bere ordena muguerri gabecoez Erregueren sujetic batere preso emanarazteco; eta eman arazten badituzte, nahiz hec, nahiz presondegutaco eta gaztelutaco presoner suerte horiec errecibituco tuzten goardianoac behar dute ican cherkhatuac eta punituac, libertate maite eta preciatua hausten eta porrosatcen duen crima eguin dutelacotz.

Frances bakhotchac behar du ican libertate osoa imprimeriaren ariaz arguitarat emaiteco, populuaren corionarentzat, edo oraino haren pausuco demboretan errecrearazteco, asmatuco tuben pensamendu guciac. Hartaracotz deseguin behar dire liburu bisitatcaillen empleguac, eta liburu eguillei chilhegui behar cayote ican liburu fuerte gucien eguitea, condicio-nerequin choilqui, liburu eguillea eta autora bera icendatuco direla bere obretan. Iduri du precocione hori asquia dela abusuen guibelatceco.

Finean Soberanoaz bertze alde, Erresumaco bothere publicoaren cembait porciones duten guicon guciac, herchatuac behar dire ican hemendic harat eguinen tuzten abusuez eta inyusticiez ihardesterat, nahiz Estatu-generaletan nahiz Justiciaco Tribunaletan". (Laphurtar Escaldun Francesec, Erresumaco Estatu-generaletarat egortcen dituzten Deputatuei, emaiten dioten botuen eta instruccionen, Cayera⁷).

Arlo ekonomikoari begiratur, oraindik bizi-bizirik irauten zuten eskubide feudalen erreforma edota abolizio hutsaren premia erruz agertuko da. Zergen artean gorroto handiena jasotzen zuena "Hamarrena" zen.

"Frantzian izaten diren gehiegi-kerietatik herriarentzat tristagarrienak, behartsuentzat etsipengarrienak, goi-apaizteriak dituen mugagabeko aberastasuna, alferkeria eta bizi duten luxu izugarriak dira. Ondasun hauek, neurri handi batean, herrien izerdiaz metatuak dira, hauetatik "hamarrena"ren izenean apaizek zerga ikaragarria bereganatzen bait dute. Herriek arras ongi dakite "hamarren" hauek onartuak izan direla aldare, eliza eta pobreen aldeko laguntza ematearren. Haatik, goi-apaizak aldare-zerbitzua lansariaren truke behe-apaizteriarri eginarazten dio. Azken apaiz hauek, benetako artzainek, lazeria gorrian dihardute beren ordenakideen handikeria eta patxada direla eta. Begi bistan dago Hamarrenak bere xedea ez duela betetzen zeren zerga hau deus gutxitu barik, fededunek bataioak, ezkontzak,

hiletak eta abar ordaindu behar bait dituzte." (Mirabeauko Koadernoan, Aixko Seneskalia⁸).

Derrigorrezkoa zen Frantzia bezalako lurralde batean, non hogeitasei milioi biztanletatik bi milioi bakarrik bizi zen hirietan, nekazal munduarekin zer ikusirik zuten erreibindikazioak oso kontutan hartzea. Hamarrena zergarekin batera, Jaunaren labe eta errotaren nahitaezko erabilpena, "Champart", "Taille", "Gabelle" eta "Fief"en kontrako kritikak agertuko dira lehen mailako koadernoetan, azken urteetako uzta txarrek larriagotu zuten nekazarien egoera penagarria isladatuko delarik.

"Bere abilezia, lana eta eginahalengatik balore handikoa den nekazal klase honentzat, jabegoa hutsa da bere lurraldeko aberastasunak fiskoak jaten dituelako. Finantzari aberatsek, luxu iraingarriaren hatua herrestan daramaten bitartean, nekazariak gabeziaren zarpailez jantzita, lo egiteko lastozko ohe bat besterik ez du eta janari bakartzat, askotan bere malkoekin bakarrik busti dezakeen ogi-puska bat dauka. Hemen haurtzaroak ez du atsedunik, zazpi urte dituela laborari, hogeitamarrekin zaharturik, horrela da belaunaldi honen patua. (Hirugarren estatuaren Koadernoan, Bailia de Poitiers⁹).

Emakumei zegokienean, egoera desberdina zen estamentuen arabera. Noble zirenek 1978eko urtarrileko erret arautegiaren bitartez bere ordezkapen-eskubidea legezkotzat zeukaten, "Emakume jabedun eta nobleek,

nahiz eta neska alargun edo adingabekoak izan, prokuradoreen bidez ordezkaturik egon ahal izango dute". Era berean, seroreen komunitateek, estamentu erlijiosoan hautatutako diputatu edo prokuradore bat, funtzio bera bete zezan, har zezaketen. Estatu Lauan gelditzen ziren emakumeek ez zuten horrelako eskubiderik. Hala eta guztiz ere, 1789ko Frantzia eta azken aldikotz Estatu Orokorrak bildu zirenekoaren artean, 1614 urtekoa alegia, desber-dintasun asko ziren eta ordurako burgesiaren zenbait familiak gero eta garrantzi handiagoa ematen zioten nesken heziketari.

Historiografia tradizionalak bi emakume-mota aurkeztu dizkigu. Alde batetik, iraultzaren eszenatokian lehendabiziko lerroak osatu zituztenak, ideologia batekoak nahiz bestekoak, eta bestetik, erreboltetan parte hartu zuten emakume anonimoak, baina, biak ere, beti gizonen itzalpean geldituz. "Giza eskubideen aitorpena"k berak eta Gizonezkoen sufragio unibertsalak ere beren izenburuetan eta garapenean, emakumeen zokoramendua argi lagatzen dute. Emaitzei bakarrik begiratuz gero, gizonezkoek bakarrik burututako iraultza izan zela dirudi. Hala ere, iraultzaren bezperetatik, emakumeak mintzo zaizkigu. Haiek idatzitako Kexu-koadernoan kopurua ez da oso handia eta eskuratu ditugunak komunitate erlijiosoetatik edo merkatarien elkarteetatik iritsi zaizkigu batipat. Emakume hauek, cahieren bidez arazo politiko eta ekonomiko orokorrak aztertu ondoren, bertze talde baztertuekin bat eginik, Hamarrena eta antzeko zergak desagertaraztea eskatu zuten.

"Aups hiriko "Gure Andrea"ren lekaima ursulinek beren beharrak betetzeko etekin gutxiegi dutela jakinerazi nahi dute. Hogeitabi izan arren bederatzi mila librako errenta besterik ez dute. Gainera, aintzakotzat hartzekoa da etxe oso zabala eta, zaharra delako, konponketa askokoan bizi direla; Aups-en jakiak bertze lekuetan baino askoz garestiagoak direla eta, komunitatekide gehienek oso osasun ahula dutela. Kontutan hartzen badira aurre egin behar dieten gastu guztiei, hala nola, elizaren mantenua, morroien elikadura, gaixoentzako sendabideak, mediku, kirurgilari eta kaperau baten ordainak eta premia handiko diren bukatugabeko eginbeharrak, laister konturatuko dira bederatzi mila librako irabazia ez dela nahikoa haien beharrak asetzeko. Horregatik, Hamarrenari dagozkion 195 libra ordaintzetik libra ditzatela eskatzera behartuta daude, noble-jabegorik ez dutela eta" (Aups hiriko seroren Koaderno¹⁰).

Emakumezkoen cahier gehienek jarrera eta aldarrikapen berdintsuak azaldu bazituzten ere, interes zehatzak alegia, bazegoen bertze hainbat idazlan, non eskakizunek gizartearen oinarritzko zutabeak zalantzan jartzen zituzten, emakumeen rola goraiapatuz eta erreibindikatuz. Ildo honetatik, adierazgarria da oso "Petition des Femmes du Tiers Etat au Roi" delakoa. Sinadurik gabeko izkirio honetan, garai hartako emakumeek pairatzen zuten egoera isladatzeaz gain, lanerako eta hezkuntzarako eskubideak aldarrikatzen zituzten.

"Hirugarren Estatuan ia emakume guztiak ondasunik gabe jaiotzen dira; haien heziketa arrot zakarra eta axolagabea da: Erakusten duen hizkuntzaren lehenbiziko letrarik ere ez dakien maisu baten eskolara joatean datza. Mezaren otoitzak frantzesaz eta bezperak latinez jakin arte jarraitzen dute. Erljioaren funtsezko urratsak ezagutzen dituzten momentutik lan egiten ikasten dute. Hamabortz edo hamasei urte betetzen dituztenerako, egunez, bortzpasei txanpon irabaz ditzakete.

Naturak edertasuna ukatu dienean, ezkontsaririk gabe zorigaitzeko artisauekin ezkontzen dira, landare gisa bizitzen dira probintzi zuloetan eta hazi ezin dituzten umeak erditzen dituzte. Aitzitik, ederrak badira, ez dute kulturarik ezta oinarri moralik ere; lehendabiziko seduzitzailearen afera bilakatzen dira eta erruan erori ondoren Parisera bere lotsa izkutatzeratortzen direlarik betirako galtzen dute. Gaur egun, bizirik irauteko zailtasunak emakume hauetako anitz enkantetan jartzen ditu. Gizonei erosoago suertatzen zaie denboraldi batez bere amodioa erostea betirako bereganatzea baino.

Hainbat emakume neska jaiotzeagatik beren gurasoek arbuiaturik izan dira eta aitzina ateratzeko laguntza eduki beharrean, familiaren izenari iraunerazi behar dion semeak ondasun guztiak bereganatzen dituela ikusten dute. Hainbertze kalteren kontra jotzeko, Jauna, guk hauxe eskatzen dugu: Gizonek ezin dezatela emakumezkoi dagozkien ogibidetan, hots,

joskile, brodatzeile... eta abarretan ihardun. Utz diezazkigutela orratza eta ardatza, guk, oster, ez dugu sekulan hartuko ez eskuaira, ezta konpasa ere." (Petition des Femmes du Tiers Etat au Roi¹¹).

Koadernoen bitartez ere estatu batzuk besteenganako adieraziko duten jarrera ikus daiteke. Hirugarrenarena, situazioen arabera aldatzen zen eta agitz kontrakoa zen pribilegioen garrantziak zergen zama jende pobrearengan eroriarazten zuen lekuetan.

"Dena hirugarren estatuaren gainean erortzen da. Gune bakoitzean noble berriak sortzen zirenez gero gainzamatuta aurkitzen da beti. Norbait noblezian sartzen denean, "Taille", antzeko zerga guztiak eta prestakuntzak estamentu honetara bideratzen dira. Dagoeneko noble sobera daude. Guk geure gainetik noblezia eduki nahi dugu baina noblezia emankorra, lortua izana eta merezimenduaren bidez irauun dezala eta ez meritu bezala helburutzat ondasunak biltzea baino ez duen noblezia zapizti eta irrigarria." (Salmonville-la-Riviereko koaderno, Rouengo Bailia¹²).

Aristokraten aurkako aiherrak bezala, apaizek emandako adibide txarra eta elkartasun ezak kontrako testu ugari eragingo ditu.

Eliza, aberastasunik barik hazi egin da. Hauekin endakatu egin da. Bere hasierako tankerara bueltaraztea bere aintzinako saindutasunera eramatea izanen litzateke. Garai haietan

adibideaz predikatzen ziguten. Gaur nahikoa dute esatearekin: Egin ezazue esaten duguna ez begira egiten dugunari. Denboraldi zorionsu horiek berpizteko eta neurrigabekeria erortzen den moral hau, gaitz guztien erroa dena, erreformatzeko beharrezkoa izanen litzateke zitaltzen dituzten ondasun hauek kentzea. Aberastasun hauek gure erregeen eskuzabaltasunagatik iritsiko dira pobreei zuzendu diezazkieten. Gaur egun, ostera, bere nahikeriendako erabiltzen dituzte. (Villiers le Sec-ko koaderno¹³).

Nobleen koadernoak arkaismo eta aitzinapenaren nahasketa dira. Pribilegioak kolokan jarri beharrea, bizi-bizirik jarraitu behar zutelako. Esate baterako, gobernu ordezkagarri baten eskariaren ondoan lurralde bakoitzean genealogisten batzordeak antola zitzatela eskatu zuten nobleztat hartuko ziren eskubide-tituluak egiaztatzeko. Konstituzioaren inguruko arloetan plebeio eta aitonensemeen kointzidentziak oso sakonak izanen dira nobleen eta hirugarren estatuaren koaderno anitzetan Biltzar legislatiboa eta arautegi nagusi baten premian bat zetozelako. Era berean giza eskubideen erreibindikazioetan (Prentsa-askatasuna, Lettres de cachet direlakoan abolizioa...) erabateko parekidetasuna gauzatuko da.

Furet-entzat, estamentuen arteko adostasuna handiagoa da ez-adostasuna baino. Historiagile honentzat koadernoak ez dira demokraziaren hizkeraz mintzo, Erregimen zaharraren legegileen modura baizik. Halaber, iraultzatik

urrun zegoen zerbaiten adierazpena izanen lirateke. Aintzinako monarkiak idatzitako testamentu erreformatzailea berari zegokion mintzairaz izkiriatua. Nahiz eta koaderno nobleak, orokorki hartuz, hirugarren estatuarenak baino "ilustratuagoak" izan, eremu ugari amankomunean dituzte. Haien desberditasunek ez dute estamentuen arteko sustraizko aurkakotasunaren osagairik eraten. Azken batean, oinarri berri-berriei eutsitakoa bazen ere, Monarkiak bultzatutako hondar-kontsulta honetan eritzi publikoa bide tradizionaletik garraiatzen da. Testu oro tradizioaz kutsatuta dago. Orain dela mende batzutatik honat Monarkia frantziarra eraikitzen zuten gizon berberak erakunde hau erreformatzen saiatzen dira. Egile honentzat ideologia iraultzailea ez litzateke jaioko Cahieretan, ordezkariak hautatzeko liskarretan eta Estatu Orokoren bozketa eran baizik¹⁴.

Eritzi desberdinekoa Guilhaumou dugu. Honen arabera koadernoan ezaugarri iraultzaile eta aurrerakoia errege eta bere manupekoen arteko harremanaren iraulketatik dator. Hiritarrarengan oinarritutako eskari kolektiboaren ekintzak posible egingo lituzke berez iraultzaile diren adierazpideak. Eskariaren bitartez baieztatzen den subjektu kolektiboa hiritar subirano baten sormenaren aurrerapausoa izanen litzateke. Cahierek etorkizuna dakarte ez bere adierazpide erradikalengatik baizik eta hasten den prozesu iraultzailearen partaide eta berezituaren arteko mugalero bat egituratzen dutelako¹⁵.

Oharrak

- 1- GOUBERT, P; 1789, *Les Francais ont la parole*. Arg.: Julliard. Paris, 1964.
- 2.- JOURDAN, J. P, PERONNET, M; *La revolution dans les basses pyrenees*. Arg.: Homath, Paris, 1989. E. Goyenette; *Historia de iparralde*. Arg.: Txertoa, Donostia, 1985. "Pieces historiques de la periode revolutionnaire en francais et en basque" in Bulletin Societé des Sciences, Lettres, Arts et Etudes Regionales de Bayonne. Baiona, 1887.
- 3.- GODECHOT, J; *Los de la revolucion francesa*. Arg.: Sarpe, Madril, 1985.
- 4.- HAMPSON, N; *Historia social de la revolucion francesa*. Arg.: Alianza Editorial, Madril, 1983.
- 5.- GOUBERT, P; 1789, *Les francais ont la parole*. Arg.: Julliard, Paris, 1964
- 6.- Ibidem.
- 7.- "Pieces historiques de la periode revolutionnaire en francais et en basque". in Bulletin Societé des Sciences, Lettres, Arts et Etudes Regionales de Bayonne. Baiona, 1877.
- 8.- GOUBERT, P; 1789, *Les francais ont la parole*. Arg.: Julliard, Paris, 1964.
- 9.- Ibidem.
- 10.- *Cahiers de doleances den femmes en 1789 et autres textes*. Arg.: Des Femmes.
- 11.- Ibidem.
- 12.- GOUBERT, P; 1789, *Les francais ont la parole*. Arg.: Julliard, Paris, 1964.
- 13.- Ibidem.
- 14.-FURET, F; *Pensar la revolucion francesa*, Arg.: Petrel, Bartzelona, 1968).
- 15.- GUILHAUMOU, J; *La langue politique er la revolution francaise*. Arg.: Meridiens Kilncksieck, Paris, 1989.